

## Argitaratutako estatistikak *Prentsako eta publizitateko estatistikak*

Askotan ikusten ditugu eduki estatistikoa duten berriak –prentsan, irradian eta telebistan– edota publizitatea.

Batzuetan estatistika bera da berria; datu bat zabaldu nahi izaten da (KPI, langabezia, audientziak, burtsaren bilakaera...). Beste batzuetan, berriaren mezua edo iragarritako produktua osatzeko erabiltzen da estatistika.

Datuen iturria ere era askotakoa izaten da. Egunkariak edo publizitate enpresak berak ateratakoa izan daiteke, edota erakunde ofizial batek, enpresaren batek, era askotako erakundeek... ateratakoa (GKEak, erabiltzaile erakundeak, enpresaburuak, sindikatuak, gremioetako erakundeak...).

Iturria edozein izanik ere, argitara ematen diren estatistiken ostean ezkututzen diren “tranpak” ez dira gutxi. Nahiko maiz aurkitzen ditugu datu okerrak, grafiko ulertezinak, aurkeztutako datuekin zerikusirik ez duten ondorioak, aurkeztutako guztizko zenbatekoa osatzen ez duten zifrak, ordezkatzailerak ez diren laginak erabiltzen dituzten inkestak, oinarri zientifikorik gabeko kalkulu interesatuak etab.

Eskola web-eko atal honetan, ikasleari (oro har jende guztiarentzat ere baliagarria izango da) beharrezko erremintak eman nahi zaizkio, berri,

liburuxka, web orri edo iragarki batean datuak ikusten dituen arreta jarri eta kontzeptu hutsalak eta garrantzitsuak bereizi ahal izan ditzan, eta kontzeptu bakoitzari duen balioa eman diezaion.

Logikoa denez eta gure helburua hori izanik, agian argitaratzen den guztiak “tranpa” duela esaten ari garela emango du. Gure asmoa ez da halako arrastorik uztea; ongi hedatutako estatistikako adibide asko ere badaude. Hala ere, adibide horiek, ongi egoteagatik soilik ez dute horrenbeste arreta jartzerik merezi.

Datozen orriotan estatistikako informazioen “ahulguneak” aurkeztuko dizkizuegu eta benetako adibideak jarriko ditugu informazio bakoitzarekin batera. Ez dugu inor ere “seinalatu” nahi. Beraz, ez dugu adibideen iturria emango, nahiz eta benetan argitaratuta dauden.

Guztiek zerikusia dutela agerikoa den arren, arreta gehien jarri behar diegun estatistikako berrietako gaiak behean aipatutakoak dira.

Azkenik [www.malaprensa.com](http://www.malaprensa.com) web guneari zor zaion aintzatespena aitortu nahi gugu. Atal hau garatzeko web gune hori inspirazio iturri izan da eta bertan okerrentzako hainbat material eta adibide aurkitu ditugu, hoietariko batzuk zuzenean erabili ditugularik.

### 1.- Iturriak interes jakin bat izatea

### 2.- Lagina behar baino txikiagoa izatea edo laginak behar adina ez ordezkatzea

### 3.- Datuetan oinarritzen ez diren ondorioak ematea, edo, alderantziz, adierazi nahi dutena esaten ez duten datuak ematea

### 4.- Datuek oinarririk ez izatea edo kalkuluak ez-zientifikoak izatea

### 5.- Beraien artean inkoherenteak diren datuak ematea

## 1.- Iturriak interes jakin bat izatea

Berriaren iturria ez da, noski, errore bat. Gaizki egon daiteke, bai, baina horrek ez ditu datuak baliogabetzen baldin ongi jasota badaude.

Hemen erakutsi nahi duguna ohiko "larrialdi seinalea" da. Datuak ematen dituen iturriak datuetatik onuraren bat ateratzen badu, hori bada arrazoa erne egoteko. Auto-saltzaile batek inkesta bat egin ondoren bere autoak onenak direla esaten badu, ziur asko ez da

gehiegi sakondu behar izango ikerketak kale non egiten duen aurkitzeko.

Hemen zenbait adibide ikusiko ditugun arren, jakin ezazue alde zuretik gerora erakutsiko ditugun gainerako erroreen arrazoi garrantzitsuenetako bat honako hau dela.

Adibidez:

### Espainian 400 mila etxe baino gehiago lapurtzen dituzte urtean

Espainiako etxeetan 425.000 lapurreta inguru izaten dira urtean. Horietatik gutxi gorabehera ehuneko 25 Madrilen eta Bartzelonan gertatzen dira, UNESPA aseguratzaileen patronalaren txosten baten arabera. Lapurreten maiztasuna ikusita, Espainia osoan minuturo lapurreta bat egoten dela kalkula daiteke, batik batik biztanleria bolumen handia dagoen tokietan. Ildo horretan, Madrilen eta Bartzelonan, ia 11 milioi espainiar bizi diren tokietan hain zuzen ere, 98.092 lapurreta biltzen dira urtean. Horietatik 51.668 Madrilen izaten dira eta 46.424 Bartzelonan. Seguruenak Errioxa, Kantabria, Balearrak eta Asturias dira.

Autonomia erkidegoen arabera, lapurreta tasa handiena erkidego hauek dituzte: Andaluziak, Kataluniak eta Valentziako erkidegoak. Erkidego horietan jazotzen dira urtean etxeetan izaten diren lapurreten ia erdiak, hots, 200.000 inguru.

Andaluziaren baitan 75.790 lapurreta izaten dira urtean. Hona hemen lapurreta gehien jasaten dituzten probintziak: Malaga, 15.490 lapurretekin, Sevilla

15.284 lapurretekin eta Kadiz 10.393 lapurretekin. Valentziako erkidegoaren baitan, Valentzian 27.233 lapurreta izaten dira urtean (hirugarren tokian dago, Madrilen eta Bartzelonaren atzetik). Alacanten, ordea, kopurua pixka bat murrizten da: 22.004 lapurreta izaten dira.

UNESPAREN txostena etxeko polizen datuetan eta katastroko bizitoki unitateen zentsuan oinarritzen da, eta honako erkidego hauek jotzen ditu autonomia erkidego seguruentzat: Errioxa, Kantabria, Balearrak eta Asturias. Erkidegoetako hiririk seguruenak Ceuta eta Melilla dira, hiri horietan urtean 33.600 lapurreta baitaude urtean, hots, guztizkoaren ehuneko 7,92. Lapurreten maiztasunaz jabetuta, patronalak zenbait aholku eman ditu, hala nola lapurrei aztarnarik ez uztea (adibidez, jendaurrean bidaiatzeko asmoa dugula ez esatea), kanpotik ikusteko moduko etxetik alde egin izanaren arrastorik ez uztea, pertsianak guztiz ez ixtea, edota etxean gauza baliotsurik ez uztea, esku-dirua esaterako.

!!! Berri hau enpresa aseguratzaileak biltzen dituen erakunde batena da.

••• Hori berez arrasto bat da. Enpresa horiei komeni zaie "segurtasunik ezaren" ideia zabaltzea, eta hortik izenburua.

Artikuluko akatsik handiena hauxe da: Ceuta eta Melilla tokirik seguruenak direla esateko datu absolutuak erabiltzea. Guztiz logikoa da hiri horietan lapurreta gutxiago egotea, ez seguruagoak direlako, biztanle gutxien dituztelako baizik: etxe gutxiago badaude, lapurreta gutxiago gertatuko dira "etxeetan".

Bestetik, honako hau diote: "Autonomia erkidegoen arabera, lapurreta tasa handiena erkidego hauek dituzte: Andaluziak, Kataluniak eta Valentziak". Egia esan, ez dira indizeari buruz hitz egiten ari, datu absolutu bati buruz baizik. Ezin dugu ondorioztatu arriskutsuagoak direnik: lapurreta gehiago dituzte, etxe gehiago daudelako.

## 2.- Lagina behar baino txikiagoa izatea edo laginak behar adina ez ordezkatzea

Datua laginketa bidezko inkesta batetik lortzen dugunean, datu horrek ordezkatzaileria izan behar du. Hori horrela izan dadin, zenbait baldintza bete behar dira gai batzuen inguruan, esate baterako inkesta zenbat laguni egiten zaien eta lagun horiek nola banatzen diren, nola hautatzen diren... Gutxieneko baldintza batzuk betetzen ez badira, lagin hori ez da ordezkatzaileria eta emandako datuek ez dute inolako balio zientifikorik.

**Datuak ordezkatzaileria ez izatearen** ohiko adibideetan honako hauek gertatzen dira:

**.- Ez da inolako daturik ematen datuen jatorriari buruz.**

Hori gertatzen denean, normalean datuak asmatu egiten dituzte.

**.- Lagina ez da behar adinakoa ondorioen eremurako**

Oso ohikoa da esate baterako, Espainia osoa ordezkatzeko egiten diren inkestak, eta lagina handitu gabe, probintzien arteko konparazioak egiten dituztenak.

Laginketa eremu baterako pentsatuta badago, ondorioek ere eremu horretan mugatuta egon behar dute.

**.- Laginketa ez-zientifikoak**

Horrelako adibideak izaten dira gehien. Inkesta horietan, inkesta egiten zaien pertsonak ez dira

arau zientifikoei jarraituz hautatzen.

Hona hemen zenbait adibide: inkestatuek beren burua hautatu dute (adibidez interneteko galdeketetan nahi duenak erantzuten du; telebistara edo irratira iritzi bat emateko edozeinek deitzen du); inkestatu guztiak X enpresako bezeroak dira eta ondorioak, berriz, biztanleria osorako ateratzen dituzte...

Horrelakoetan, datuek ez dute inolako balio zientifikorik. Ez guke horrelako datuetatik ondorioak atera beharko.

Jakina denez, zalantza honako hau da: nola dakigu, gai hau ikertzen aritu garenok, laginketa noiz den zientifikoa eta noiz ez? Hori jakiteko zenbait ikasketa eduki behar dira, eta, logikoa denez, jendeak ez ditu zertan eduki. Batzuetan huts egiten duen baina larrialdi askotan irtenbide izango den arrasto bat erabiliko dugu: inkesta laginketa zientifiko bidez egin denean, laginketaren ezaugarrien fitxa izan behar du erantsita. Fitxa horretan, datu hauek azaldu behar dira gutxienez: laginaren eremua ("unibertso" esaten zaio eta hortik kanpo ez da ondorioak atera behar), erabilitako laginketa mota, laginaren tamaina eta onartutako laginketa errorea.

Nahiz eta zer esan nahi duten eta zer ondorio duten ulertu ez, arau gisa, fitxa hori ez duen edozein inkesta ez-zientifikotzat hartuko dugu.

Hona hemen adibide bat:

## Handitan zer izango naiz?

Txikien lehentasunei buruzko inkesta soziologiko batean egiaztatu denez, Espainiako mutikoen %21ek futbol jokalaria izan nahi dute eta nesken %24k irakasle. Txikien %80k familia jarri dute diruaren aurretik

Mutikoez 6 eta 14 urte bitarte dituzte eta igandero miresmena, "gooooo!" entzutea eta bere izena turistak kamisetetan azaltzea nahi dute. Nesken ametsa zaldi hezitzaile, modelo edo dantza irakasle izatea da, baina diotenez hori ametsa da eta errealistak izan behar dugu. Gehienek irakaskuntza aukeratu dute.

Horiek dira hurrek hitz egiten ikasten dutenetik behin eta berriz erantzun behar izaten duten galderari emandako erantzunak, eta Adecco giza baliabideen enpresak ikerketa batean bildu ditu. "Zer izan nahi duzu handitan?" galdetzen dute aiton-amonek edo urrutiko osaba-izebek. Adeccok 6 eta 14 urte bitarteko 300 haurri egin zien galdera. "Haurrak gure etorkizuneko lan indarra izango dira. Haien lehentasunak eta asmoak jakin nahi genituen. Ikerketak oso argi erakusten du honakoa: %80k nahiago du familiarekin egoteko denbora edukitzea dirua irabaztea baino". Horixe azaldu du Marina Gomezek, ikerketa soziologikoaren koordinatzaileak.

Adeccok enpresako langileen seme-alaben artean eta autonomia erkidego batzuetako ikastetxeetan banatu zuten inkesta. Valentziako erkidegoan 40 haurri egin zieten inkesta. Valentziako mutilen lehentasuna, Espainiako gainerako mutikoena bezala, kirola izan da (%24k futbol jokalaria izan nahi dute), eta neskek irakaskuntza hautatu zuten. Nesken %30ek irakasle edo pediatra izan nahi dute. Hori bai, Valentziako neskatilen %70ek ez dute nahi benetan "harroputza" iruditzen zaiena izaterik. Mutilen ehunekoa antzekoa da: %30ek baino ez dute nahi gehien gustatzen zaiena.

Gainerako autonomia erkidegoetan, mutilen %21ek futbol jokalaria izan nahi dute. Horren atzetik polizi,

formula 1eko pilotu eta suhiltzaile daude. Nesken artean irakaskuntzak du arrakasta gehien (%24). Ezberdintasunak badira, noski. Espainia osoari begiratuta, mutikoen %50 bat datoz aukeratu dutenari eta gehien gustatzen zaienari dagokienez. Neskatilen artean, ehunekoa txikiagoa da: %43 baino ez.

"Neskatoak errealistagoak dira eta badakite modelo izan nahi duten arren, asko ez direla modelo izateko bezain altuak. Argi dute zer gustatzen zaien eta zer egitera irits daitezkeen. Gehienek besteei laguntzeko aukera ematen dieten lanbideak hautatzen dituzte. Mutilek, ordea, nahiago dute miresmena", dio Beatriz Bercero psikologo eta azterlanaren aholkulariak. Munduko nagusi izango balira zer aldatuko luketen galderari aho batez erantzun zioten eta haurrak bat datoz helduen kezkekin: terrorismoa, txirotasuna eta gerrak, eta horren atzetik kutsadura eta armak.

### *Kutsadura eta gerrak*

Hurrek beraien arazotxoak ere konponduko lituzkete munduko agintari balira. Esate baterako, 8 urteko haur katalan batek esan zuen "bideojokoen prezioak jaitziko zituela" eta "kutsadura eta gerrak" kenduko zituela. Beste ume batzuek oporraldiak luzatuko lituzkete eta parke gehiago eraiki. Bestalde, Valentziako haur batek dio "guztiek doan bidaiatzeko aukera" emango lukeela.

Erretiroa denboran oso urruti ikusten duten zerbait izan arren, haur gehienek argi dute erretiroa iristen zaienean deskantsatu, bidaiatu edo "ezer ere" ez dutela egingo.

Haur batzuek erretiroa familiarekin geratu eta bilobak zaintzeko hartu nahi dute. Ume batzuek erretiroa 60 urte bete aurretik hartu nahi badute ere, beste batzuek ez dute erretiratu nahi "100 urte" izan arte edota "baliagarri" izateari uzten dioten arte.



Addeccoren ikerketan, erabilitako laginarekin ezin da emandako ondorio bat bera ere atera.

1. Espainia osorako 300 laguneko laginketa errore marjina nahiko handia da.
2. Errore marjina hori are handiagoa da sexu biantzat: mutiko eta neskatoentzat.
3. Marjina hori oraindik ere handiagoa da autonomia erkidegoei buruzko ondorioak ateratzean.
4. Eta gutxienez ikerketa zientifikoa izan balitz..., baina ez: laginketa enpresako langileen seme-alabei eta zenbait erkidegotako ikastetxeei egin zaie. Datu horrekin argi geratzen da laginak hautatzeko irizpide zientifikoak ez direla errespetatzen. Bestalde, laginketa zientifikoa denentz argi ez badugu, laginari buruzko fitxarik eman ez dutela ikus dezakegu.

Ondorioa: ondorioek ez dute inolako funts zientifikorik.

## 3.- Datuetan oinarritzen ez diren ondorioak ematea, edo, alderantziz, adierazi nahi dutena esaten ez duten datuak ematea

Atal honetan itxuraldatzen da gehien errealtatea, hala datuei erreferentzia egiten zaienean nola beste modu batzuetara: A esaten da datuek B esan nahi dutenean; hainbat arloren arteko aldeak azaltzeko datu absolutuak erabiltzen dira datu erlatiboak erabili beharrean; datuak baldarki biribiltzen dira erredaktoreari komeni zaion eran; erroreak kontaezinak dira –nahita edo nahi gabe–.

Askotan, artikuluetako izenburuek edota kanpaina bateko esloganak datuak erakusten dituzte zerbait adierazteko. Gero, ordea, datu horiek ez dute batere zerikusirik esaten denarekin. Edo, are okerrago, datuetatik

ateratzen diren ondorioak kazetariak edo publizistak zabaldu duen mezuaren aurkakoak dira.

Ohiko beste errore bat kazetariak edo publizistak hirugarrenen datuen interpretazio interesatua egin duenean gertatzen da. Halakoetan, gehien komeni zaizkion datuak atera eta datu horiekin txostena egiten da. Hori dela eta, berri edo iragarki batean datuei eta/edo ikerketei erreferentzia egiten zaienean oso komenigarria da datuen jatorrizko iturrira jotzea. Izan ere, komeni da esaten dena argitaratutakoarekin bat datorren egiaztatzea.

### **Ikerketa izugarri batek irakasleek irakurtzeko zer interes gutxi duten erakutsi du Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleen %40 ez da inoiz ere ikastetxeko liburutegira joan**

Editoreei zintzurra lehertzen ari zaie liburutegi publikoak indartu eta ikastetxeetan behar bezalako liburutegiak sor daitezen eskatzen. Oso gai garrantzitsua da, baina bada beste arazo larriago bat atzo Santanderren amaitu zen “21. Edizioaren inguruko topaketara” joan zirenak asaldatu zituena. Álvaro Marchesik, Unibertsitate Complutenseko psikologia ebolutiboan eta hezkuntzan katedradun

denak, honakoa baieztatu zuen Ruiperez fundaziorako egindako ikerketa baten inguruan: “Ez du ia ezertarako balio liburutegien aldeko apustua egitea irakasleek eta ikasleek ez badituzte libururik eskatzen”. Ikerketa hori ikastetxeetako liburutegien gaia aztertzeko eskatu zitzaion Idea institutuari, eta Marchesi institutu horretako zuzendari ere bada.



Adibide horretan argi ikusten da izenburu kezkarriak ez duela zerikusirik gero proposatzen diren datuekin.

Lehenik eta behin, ez da ematen iturrira jotzeko zuzeneko biderik, guztiz bestelako ondorioak ateratzeko aukerak ematen baditu ere.

Bigarrenik, azpigituluak argi uzten du izenburuak ez duela inolako esanahirik, erabat ezberdinak diren bi ideia nahasten baitira: hau da, irakaslea ikastetxeko liburutegira joatea eta irakasle horrek irakurtzeko duen interesa nahasten dira. Ziur aski irakasleek ikastetxeko liburutegiko liburuak irakurrita izango dituzte (gainera, liburu horiek ikasleengan pentsatuta aukeratuta egongo dira), eta liburuak beste toki batzuetan bilatuko dituzte.

## 4.- Datuek oinarrik ez izatea Kalkuluak ez-zientifikoak izatea

Lehenago aipatutako ohiko errorearen beste iturri bat dugu hau. Norbaitek inongo ardurarik gabe zifrak "asmatu" edo puztu egiten ditu. Gero, zifra horietan oinarrituta, hedabideetan argitaratzen diren ondorioak ateratzen dira.

Tranpa horretan ez erortzeko atal honetan azaldutako baliabide guztiak erabili behar dira: sen ona, datuak alderatzea, iturri orijinala bilatzea, berriaren iturriak interesa duen ikustea...

Esan dugunez, horrelako adibide askok zerikusia dute haien artean. Esate baterako, maiz gertatzen da interesa duen iturriak datu ez-zientifikoak eman eta hedabide batek akritikoki argitaratzea, eta, ondorioz, idatzizko artikulek duten baliagarritasuna gehituta izatea. Azkenik, "ahoz aho" hitz egitean datu faltsuak orenen jakinduria bihur daitezke. Beraz, prebentzio neurri guztiak hartuta ere ez dira behar adinakoak horrelako egoeratan, datuak onerako izanda ere edota gure iritziekin bat etorrita ere (gainera, horrelakoetan are arreta handiagoa jarri behar da).

### Estatistiketan ez dira jasotzen Espainian laneko arrazoiengatik egunean gertatzen diren 28 heriotzetatik 24

Espainian, lan egun bakoitzean 28 pertsona hiltzen dira laneko arrazoiengatik. Hala ere, estatistika ofizialek lau baino ez dituzte jasotzen. Gainerako heriotzak enpleguarekin loturiko gaixotasun edo istripuengatik gertatzen dira, eta inoiz ere ez dituzte profesionaltzat sailkatzen. Gainera, askotan, laneko gaixotasunak gaixotasun arrunt gisa sartzen dira Estatuko Osasun Sistematan. Beraz, ezin dira laneko eremuan zenbatu.

CCOO eta UGT sindikatuek zenbait errebindikazio aurkeztuko dizkiote gaur gobernu zentralari. Errebindikazio horien artean, besteak beste, laneko ezegonkortasun hori eragiten duten arazoei aurre egiteko neurriak hartzea nabarmentzen da, hala nola zaintza handiagoa ezartzea, behin-behinekotasuna murriztea, baterako estrategiak hartzea, eraikuntzaren sektorean arreta berezia jartzea... Izan ere, gaur "Laneko segurtasunaren eta osasunaren nazioarteko eguna" ospatuko da hamargarren aldiz eta egun hori 12 herrialdetan ospatzen da, Nazio Batuek munduko gainerako tokietan ere egun hori izenda dezaten itzaropenez. Aurten hautatutako lema honako hau izan da: "Enplegu osasungarria eta segurua, zure eskubidea da".

#### Ikusezina ikusgai

Datu ofizialek islatu dutenez, joan den ekitaldian 955 langile hil ziren Espainian lan ordutan, eta 488 hil ziren lanera bidean edo lanetik etxera bidean. CCOO eta UGT sindikatuen arabera, zenbaki horiek errealitate gordina den izebergeko puntan dauden datu batzuk besterik ez dira. Sindikatu biek ohartarazi zuten elkarrizketa sozialetik espero dituzten fruituetako bat "ikusezina den guztia ikusgai" bihurtzea dela, horrela langileek "isilpean sufritzeari uzteko".

Esate baterako, produktu kimikoen eraginpean egoteagatik urtean 4.000 heriotza eta 33.000 istripu gertatzen dira, eta gobernuak bi edo hiru hildako besterik ez ditu onartzen arrazoi horregatik.

Ekitaldia ospatzeko manifestazioak, kontzentrazioak, erakusketak eta beste jardura batzuk antolatu dituzte hiri garrantzitsuetan, eta, horien artean, Euskal Herrikoetan.



Euskarririk ez duen titularra, besterik gabe.

Berri hau ez da ikerketa zientifiko batean oinarritzen; are okerrago, berrian bertan ez da inolako informaziorik ematen titularreko datua egiaztatzeko.

Badirudi ezerezetik atera dutela.

## 5.- Beraien artean inkoherenteak diren datuak ematea (*batuketak zuzenak ez izatea,...*)

Ziur aski, argitaratzen diren estatistika erroreetatik hautematen errazena da: subtotalak batuta emaitza batura baino handiagoa da; ehunekoen batura ehun baino handiagoa da; kopuruak ezin dira zientifikoki egi izan, edo zentzugabeak dira.

Horrelako adibideak aurkitzeko ez da gehiegi behar: sen ona, zorroztasuna eta kalkulagailua.

Adibide batzuk:

### Espainiak esportatutako armen %40k Europar Batasuneko jokabide kodea hausten dute

MADRIL.- 2003an Espainiak armak esportatu zizkien hamar herrialdetatik lau herrialdek ez zuten bete Europar Batasuneko jokabide kodea. Merkataritza mota hori gardentasunik eta kontrolik ez duelako nabarmendu da. Horiek dira Amnesty International, Greenpeace eta Intermon Oxfam erakundeek aurkeztutako ondorioak, informazioa gobernuak emandakoarekin alderatu eta gero.

“Azken urteetan zenbait aurrerapauso izan dira gobernuak gai horri buruz ematen duen informazioari dagokionez. Hala ere, Espainiak egiten dituen armen transferentziei buruzko informazioak sekretismoz inguratuta egoten jarraitzen du” baieztatu dute

gobernuz kanpoko erakundeek.

Txostenean, erakundeek armen merkataritzari buruz egia ezagutzeko zenbait jardunbide egoki gomendatzen dituzte. Era berean, gizarte zibilaren kontrola eta bereziki legebiltzarrarena gomendatzen dituzte.

Ikerketa horren arabera, Espainiak esportazioak hirukoiztu egin ditu azken hiru urteetan. Esportazio horietatik %90ek EBko herrialderen bat izan dute jomuga. Hala ere, Espainiako armen helmugetako %40k ez dute Europar Batasuneko jokabide kodeko azterketa gaitzitzen, hala nola Israel, India, Indonesia edo Venezuelak.



%90ek EB dute jomugatzat, baina %40k ez dute betetzen EBren beraren jokabide kodea.

Beraz, EBren baitan kode hori betetzen ez duten herrialdeak daudela pentsatu beharko dugu: zaila da hori gertatzea.

### Espainiako hamar gurasotatik seik erlijio eskolak izatea eskatzen dute

Erdiak baino gehiagok (ehuneko 48,3) use du ikasle eta gurasoek erlijio eskolak (katolikoa edo beste batzuk) edo ezer ere ez hautatzeko aukera izan beharko luketela. Halaxe adierazi du Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) "Erlinjioaren egoera Espainian XXI. mendearen hasieran" izenburua duen txosten batean.

Era berean, hamar herritarretatik bik baino gehiagok nahitaezko irakaskuntza konfesionalaren aldeko apustua egiten dutela baieztatzen da, bai eta ehuneko 9k doktrinen irakaskuntza ikastetxeetatik ateratzeko eskatzen dutela ere.



Ezin zehatzagoa.

Emandako zifra (%48,3) “erdia baino gehiago” eta “hamarretik sei” bihurtzen da.

Komunen Ganberak Charles printzeak Cornwall-eko dukerriak bere gastuetarako urtean sortzen dituen 24.000 euro zertan erabiltzen duen ere aztertuko du. Besteak beste, 84 langileri ordaindu eta Camilla Parker Bowles neskalagunaren bulego berriko gastuak ordaindu ditu.

!!! Zein gutxi irabazi behar izan duten langile horiek!

## Erretzearen prezioa Hogeita hamar euro paketeko

Estatu Batuetan bizi diren 50 milioi erretzaitatik batek tabako pakete bat erostea erabakitzen duenean ez daki benetan zenbat gastatzen ari den. "Erretzearen prezioa" (MIT Press) liburuak mendekotasun horrek dakarren gastua aztertzen du, eta pakete bakoitzeko 40 dolar ingurukoa da (ia 30 euro).

320 orritan, liburuak "tabakismoaren eraginari buruzko zenbait azterketa" biltzen ditu, azaldu dio Frank Sloan-ek "elmundosalud.com" webguneari. Frank Sloan liburuaren egileetako bat da eta Duke-ko unibertsitateko kide da (Durham, Ipar Carolina). Irizpide zorrotzari jarraiki, idazleek kontuan hartu zituzten kostua areagotu ditzaketan erretzailearen inguruan parte hartzen duten faktoreak.

2004an argitaratutako eskuliburuaren arabera, 24 urteko erretzaile batek 220.000 dolarreko kostua eragiten du (160.000 euro baino gehiago) hurrengo 60 urteetan. Emakumea izanez gero, kostu hori 106.000 dolarrekoa da (ia 79.000 euro). Zifra horiek, aldi horretan, Estatu Batuetan 204 bilioi dolarreko gastua eragiten dute (150 mila milioi euro baino gehiago). Egileek kopuru hori laburbildu egin dute gogoratzen errazagoa den kopuru batean: 40 dolar pakete bakoitzeko bizitzan geratzen den denboran. Horietatik, 33 dolar (24 euro inguru) erretzailearen kargura doaz, 5,44 dolar (lau euro) familiako dirutik datoz eta gainerako dolar eta 44 zentimoak (euroa) gizarteak jartzen ditu.

### Lehenago hiltzen dira

Gizarteak ordaindu beharreko kostuari dagokionez, testuak nabarmendu du Ipar Amerikan kostu hori uste baino txikiagoa dela. "Zifra hori txikia izatearen arrazoiak zerikusia du pentsio pribatuekin, gizarte segurantzarekin eta Medicare-rekin [...]. Erretzeko ohiturak benetan dirua aurrezten du [...]. Erretzaileak lehenago hiltzen dira eta ez dituzte sistema horietan sortutako funtsak aprobetxatzen" nabarmendu du Sloanek.

Zifra horiek ez lukete balioko Espainia eta Europar Batasunerako. Izan ere, besteak beste, osasun sistema bestelakoa da.

Ildo horretan, Elena Salgado osasun ministroak tabakoaren aurkako kanpaina baten aurkezpenean esan zuenez, ohitura horrek osasunaren, ingurumenaren eta ekonomiaren arloetan duen kostua urtean 100 bilioikoa da.

"Beharrezkoa izango litzateke 24 urte edo gutxiagorekin pertsonak erretzea zein garestia den jakitea. Hartuko duten erabakirik garestienetakoa da", ondorioztatu zuten zahartzearen institutu nazionalak babestutako ikerketa egin zuten Estatu Batuetako ikerlariek.

!!! EBri erreferentzia egiten dion letra gorritz aurkeztutako zifra astronomikoa da. Irrealia.

EBn 200.000 euro per capitako urteko gastua izango litzateke.

Beste ezer ere esaten ez den arren, pentsa daiteke datu hori Estatu Batuei erreferentzia egiten dien lerro gorrietako datuen analogoa dela. Horren arabera, gastu itzel hori ez da urtekoa, baizik eta 60 urtekoa, baina hori gure ustea da.

## Gomendioen laburpena

**Kontuz interesa duten iturriekin.  
Zerbait saltzen saiatzen direnak  
ez dira oso zorrotzak izaten datuekin.**

**Ez itzazu baliagarritzat hartu  
laginketa zientifiko gabe egindako inkestak.**

**Egiatzatu aurkeztutako ondorioak emandako datuetan  
oinarritzen diren.**

**Datuak alderatu eta begiratu ea "batuketak irteten diren".**

**Sen ona erabili.**